

ATZEKOZ AURRERA

Drogaren aje klownikoak



JON URBE / ARGAZKI PRESS

Oihulari Klown antzerki taldeak drogek gazteen artean sortzen dituzten arazoengatik inguruko antzezlanak aurkeztu ditu Hernanin

Pilulazaleak, speedzaleak, droga saltzaileak, eta kalamuzaleak... Gazteek drogearekiko duten harremanari buruzko antzezlanak aurkeztu zuen asteazkenean Oihulari Klown taldeak, Hernaniko Biteri Kultur Etxean. Askagintzarekin elkarlanean eta Gazte Txokoaren egitarauaren barruan aurkeztu zuten *Rekoloklown* antzezlanak, dozenaka ikusleren aurrean. Ikusleek, gainera, zuzenean parte hartu zuten, batez

ere umeek, behin baino gehiagotan erantzuten baitzieten aktoreek egindako komentario eta galderei.

Rekoloklown antzezlanean klown bakoitzak harreman mota bat du drogearekin. Bi neskek —Maria Alonsok eta Itziar Lamuedrak antzeztutakoek— pilulak hartzen dituzte, eta dantzalekuetan ibiltzen dira, euren onetik irtenda gehienetan. Egoera horren aurrean sortzen zaizkien une gazi-gezak azaltzen di-

tuzte, gaziak gehiago gezak baino. Droga saltzaileak —J. Carmelo Muñozek antzeztutako pertsonaia— kanabera batekin heltzen dio nesketako bati, neskek kanabera dituen piluletako bat hartu duenean. Une horretatik aurrera, droga saltzaileak nahi duen erritmora mugiarazten du neska, azkenean, nahi duen txokora eraman arte.

Neska pilulazale gaztea dantzalekuan dabil eta amaren deia jasoko du: etxean kezkatutik da-



JON URBE / ARGAZKI PRESS

Oihulari Klown taldeko aktoreak, asteazkenean, Hernanin.

goela esaten dio, ezin duela lo egin. «Zutaz kezkatzen naiz, zure anaiaz, zure aitaz, prezioen igoeraz...», arnasestuka, larri ageri da emakumea. Pilulak hartzen ditu amak ere, bere kezka eta ezinegonei aurre egiteko.

Speedzalearen papera egiten duen klown-ak —Joanes Izak antzeztutakoa— haxixzalearekin —Txefo Rodriguez— topo egiten du taberna batean, eta bien arteko elkarriketa sortzen da. Speedzaleak mugimendu ugari egiten ditu, batera eta bestera, baina bere buruarengan konfiantza eza nabarmena erakusten du. Haxixzaleak, berriz, ahaztura. Behin eta berririo ahazten zaizkio kontuak.

Speedzaleak uste du haxixzaleak adarra jotzen diola, eta haserre mugitzen da batera eta bestera: «Niri barre egiten dida-

zu, eta zuek ere bai —ikusleei—». Urduri jartzen da, bere onetik aterata, eta bihotzekoak jota lurrera eroriko da. Orduan agertzen da droga saltzaileak, eta kontsumitzaile onenetako bat hil delako kexa agertzen du.

Drogaren atzean interes ekonomiko eta gizartea kontrolatzeko nahia ageri direla diote lanaren uste batean, laburpen gisa edo, esku beltz batek mugitzen dituela drogearen inguruko hariak. Azkenean, speedzalea bere onera ekartzea lortzen dute gainerako lagunek, baina drogearen menpe segitzen du.

Oihulari Klown antzerki taldeak eta Askagintzak elkarlanean antolatutako lana asteazkenean estreinatzen zen Hernanin, baina aurrerantzen Euskal Herriko beste herri eta auzoetara eramango dute.

I. Petzarroman | HERNANI